

## Gauza asko kabitzen dira dokumental honetan

**'Sagardoa bidegile'** halako entziklopedia txiki bat da. Hainbat lagun mintzo dira bertan eta aho-zapore ona uzten du. Batek pentsatzen du: hau zortea daukaguna edari hau edukita!

32 sagardotegik eman dute izena Euskal Herriko lehen txapelketa herrikoirako. Asko dira. Bihar jokatu da, Azpeitian



LAUBIDE

FELIX  
IBARGUTXI

**E**lhuyar eta Pixel ekoiztetxeen 'Sagardoa bidegile' dokumentala ikustera joan nintzen igandean. Atentzioa ematen du hango informazio-kantitateak. Hango datu pila, hango testigantza metaketa! Produktu benetan landua da, eta informazio aldetik ez ezik, iruditeria aldetik ere erakargarria. Izango da ikusteko aukera: urtarrietik aurrera, txotx-garaiarekin bat eginez, proiektioak egingo dira herririk herri.

Hasiera etnografikoa du. Txalapartari batzuk ageri dira musika-tresna hori jotzen Astigarragako Santiagomendi aldean. Kontu jakina baita sagardoa eta txalaparta oso loturik daudela; dioteenez -eta dokumentalean **Simon Goikoetxea** txalapartariak dioenez-, sagardoa egiten zenean, nagusiak txalapartarekin jakinarazten zuten, eta bailarako jendea han agertzen zen barrikotetik dastaketa egitera.

Dokumentala atzera begira hasten da, gero datu historiko asko ematen du, baina gaur egungo egoera ere ageri da. Faltan sumatu dudana gauza bat: apenas hitz egiten duen gaur egungo teknologiaz, muztioen analisiez, hozte-sistemez...

Hiru urteko lana izan da, aurkezpen-emanaldian **Bego Zubia** zuzendaria esan zuenez, eta hain zuzen ere «elkarlanaren balioa» da gehien ikasi omen duena prozesu luze honetan. Ez da hasi berria, ETBko **'Teknopolis'** saioko zuzendaria izan da, besteak beste.

Sagardogileen testigantzei dagokionez, batik bat hiru lagun mintzatzen dira: **Arantza Eguzkiza** -Iparragire sagardotegikoa, Elkarte-ko lehendakaria-, **Oihana Gañcerain** -Zelaia- eta **Miguel Zapiain** -Zapiain-. Eguzkizak aitortzen moduko bat egiten du: «Denbora asko behar izan dut konturatzeko hau nire tokia dela». Izan ere, Zuzenbidea ikasitakoa da emakume hau.

Esan bezala, apenas ukitzen den alderdi teknologikoa, baina aipatzen dira azken urteotan EHUko Kimika Fakultatean -**Iñaki Berregi** buru dela- egiten ari diren sagardo monobarietal esperimentalak. Dokumentalean Berregik dioenez, Urtebi Txiki sagararekin sagardo monobarietal ona atera izan zaie, eta sagardo oso



**Sagastian esana.** 'Sagardoa bidegile' dokumentaleko pasartea. Bego Zubia zuzendaria eta, hizketan, Jakoba Errekondo aditua. :: ELHUYAR



**Manttoni.** Sagar honekin monobarietal ona ateratzen da.

polita egin omen dute mata hori Goikoetxearekin nahastuta -edota Txalaka-rekin-.

Bestalde, orain denbora asko ez dela, Donostiako Euskal Jaietako Sagardo Egunean, **Iñaki Berregi** han azaldu zen iazko uztako sagardo monobarietalak aurkeztera, eta gauza bat berria irakatsi zigun: Manttoni sagararekin ere -bera soilik-sagardo polita ateratzen da, argia eta gazia.

Dokumentalera itzuliz, historialariek esan izan dutena entzun genuen berriz ere, **Jakoba Errekondo** eta **Alberto Santanaren** ahotik. Errekondok: «Sagarrik eta sagardorik gabe ez zen base-rririk egongo». Eta Santanaren: «Hasiera batean, XVI. mendean, Gipuzkoako baserrien %99,9 dolare-base-rriak ziren». Alegia, aspaldiko gizaki haiek sagardoan ikusi zuten dirua eta etorkizuna, izan ere marinelek sagardo asko eramaten zuten beren bidaietan: laguneko eta eguneko hiru litro. Urak ez zuen balio; useldu egiten baitzen behala.

### Txapelketa eta herrikoa

Bihar, **Euskal Herriko I. Sagardo Txapelketa Herrikoa** egingo da, Azpeitiko Berdura Plazan. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak eta Hazi Fundazioa izan du laguntzaile.

Afaria egingo da -txartelak salgai egon dira azken egunotan 30 euroan- eta afaltzen ari diren lagunek hango eta hemengo sagardoak dastatuko dituzte, eta puntuazioa jarriko. Eurak izango dira epaile.

Ez dute jakingo zein sagardotegitako sagardoa ari diren dastatzen. Afaltzen hasi orduko, hasiko dira mahaira sagardoa ateratzen eta jendeak lote bakoitza puntuatu beharko du. Jendea lau multzo handitan banatuko da eta zozketaz egokitzen zaizkion sagardoak dastatuko ditu.

Lehen ere horrelako txapelketak egin izan dira, eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak heldu nahi izan dio usadio horri.

Guztira, 32 sagardotegik

eman dute izena lehiatzeko. Asko dira. Tartean bada izen handiko batzuk, hala nola Saizar, Eula, Añota, Bereziartua, Aburuza, Astarbe eta Zabala. Baita Bizkaiko bat ere: Markinako Axpe.

«Ditugun datuen arabera, 1967tik aurrera bost bat urtean antolatuta zuten sagardo-txapelketa orduko Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak -gerora gaurko elkarte bihurtuko zenak-. Bertan, parte hartzen zuten sagardotegien sagardoak bihuru herritan banatzen zituzten, eta puntuaziorik gehien lortzen zuten sagardotekin finala jokatzeko zen beste herri batean, adibidez Donostiako Euskal Jaietan», adierazi du Elkarteko **Unai Agirre**k.

Azken urteotan, beste herri batzuetan ere egin izan dira txapelketa herrikoiak -Azpeitian bertan, Andoainen, Elgoibarren, Tolosan- eta datorren urteetik aurrera lehiaketa horiekien elkarlanen hasi eta halako sare bat osatu nahi du Elkarteak.

### Iparraldeko sagarra ezagutzeko

**XV. Sagar Uztza** jaiaren barruan, sagardo-sagarren kata gidatua egingo da gaur Astigarragako Gure Izarra elkartean. Bereztasun handi bat izango du ekimenak: Hegoldeko eta Iparraldeko sagar-mota batzuk emango dira dastatzera. Probaketara azaltzeko, aurrez izena ematea beharrezkoa da: 943550575 / info@sagardoarenlurraldea.com

fibargutxi@diariavasco.com